



# 3. MÁXIMO MORENO MUSIKA ESKOLA: ¿NON DAUDE EMAKUME MUSIKARIAK?

Musikaren historiak ez du ondo jokatu emakumeekin, ikusezin egin dituelako eta, horrez gain, zenbait musika-tresnatar mugatu duelako haien jardun profesionala. Era berean, emakumeen sorkuntza-lanak ere geldiarazi eta debekatu zituzten. XVII. mendean, Inozentzio IX.a aita santuak adierazi zuenez, «musika erabat kaltegarria da emakumeek erakutsi beharreko apaltasunerako, dagozkien eginkizun eta zereginetatik urruntzen ditu-eta. (...) Emakumeek ez dute inolaz ere musika ikasi behar, edo ez dute inolako musika-tresnarik jo behar».

**Ane Legarreta** galdakoztarra Galdakaoko Da Capo Musika Bandako zuzendaria izan zen (2014ko iraila - 2018ko ekaina), eta, gaur egun, Portugaleteko Udal Banda, Getxoko Musikalia Banda eta Zumarragako Musika Banda zuzentzen ditu. ESASeko sortzailekidea ere bada (Bilbo, M8, 2021). Irabazi-asmorik gabeko elkarte horrek emakume artistei eta sortzaileei eman nahi die agerikotasuna, eta musika klasikoaren arloko emakumezko erreferenteak eman nahi ditu jakitera, ekosistema horretan, besteak beste, emakume jotzaileak, musikagileak, zuzendariak, kazetariak, ekoizleak eta bitartekariak daudela kontuan hartuta. ESASek adar artistiko zehatza, klasikoa, dauka xede nagusi, bertan estigma kontserbadoreak daudelako betidanik. Izan ere, bete-betean lan egiten du, parekotasuna lortzeko eta emakume zein gizon musikarien lanbidea lan-ingurunean bertan parekatzeko. Horrez gain, elkarerreraginerako berezko eremua ere sortu nahi du, diziplina anitzeko proiektuak garatzeko moduko sare inklusiboa ehundu ahal izateko.

María Luisa Ozaita 1939an jaio zen Barakaldon, eta Musikako Emakumeen Elkartearen sortzailea da. Elkarrizketa batean, honako haxe baieztatu zuen: «gizonentzat emakumeentzat baino errazagoa da euren lana orkestra sinfoniko batekin estreinatzea. Nik neuk 74 urte neuzkala lortu nuen». Inma Shara zuzendaria 1972an jaio zen Amurrion, eta honako haxe esan zuen beste elkarrizketa batean: «prozesu geldoa eta pixkanakakoa izan da emakumeak orkestran sartzea. Gaur egun, emakumeak langile-taldeetan nagusi badira ere, ez dira oraindik podiumera iritsi,



## AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEAK

### EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEA

emakume zuzendari gehiago egotea lortu behar delako. Jakin badakit hori lortuko dugula, oztopoak oztopo, talentu handia dagoelako. Niretzat pozgarria izango litzateke neskatilek orkestra-zuzendaritza ikus-entzuleen taupadarekin lotuta dagoen lanbide liluragarria dela sentitzea. Neska gazte batek zuzendaria izateko ametsa badauka, jakin egin behar du erabakitaz, autoeskaeraz eta grinaz inolako mugarik izango ez duela».

### Bazenekien...

Euskadiko Orkestra Sinfonikoko (OSE) musikarien %34 baino ez direla emakumeak, Eusko Jaurlaritzak egindako “2022an emakumeek eta gizonek EAEko musikako sorkuntza-lan eta ekitaldietan dituzten agerpenari eta partaidetzari buruzko azterlanean” adierazitakoaren arabera?

### MI(cro)RELATO

#### Lo conseguí

Por mi quince cumpleaños, mis padres me regalaron un estuche de piel negra precioso que contenía una batuta. Desde pequeña habían apoyado mi deseo de ser música. Pagaron buenos profesores, incluso viajes al extranjero. Con esfuerzo. Deseaban facilitarme la mejor preparación que se podían permitir dentro de su economía. Mi intención era convertirme en directora de orquesta, aunque fuera un terreno acotado para los hombres. Ahora lo soy. A veces uso aquella batuta en los conciertos.

*Inés Suso San Miguel*

### Esteka interesgarriak

<https://esas.eus/>